

Itsasoar guztioi adeitasunez,

Jarraian, 2020ko urriaren 17an Itsason burututako HERRI BATZARREKO AKTA jasotzen da.

1. - Itsasoren udalerrri izaerari dagokion Madrileko Auzitegi Gorenaren aurkako sententziaren ondoren jorratutakoak:

• **Aldundiarekin izandako bilera (irailaren 28an)**

- 2016ko abenduaren 20koa izan zen Gipuzkoako Foru Aldundiko Foru Dekretua, Udalerria sortzea ahalbidetu ziguna
- 2020ko uztailaren 16ko epaiaren bitartez, Estatuko Auzitegi Gorenak Dekretu hau baliogabetu du eta ez dago errekurrizeko aukerarik
- Legeak ezartzen du epaia exekutatzeko bi hilabeteko epea, ofizialki sententzia jasotzen denetik eta bileran adostu zen epe hau 2020ko abenduaren 31n ezartzea. Data horretan Itsasoko Udala desegingo da, eta hortik aurrera berriro Ezkio-Itsaso Udalerrri bakarra eratuko da (Batzorde tekniko batek egingo du jarraipena)
- Itsason Auzo-Udala garatu ahal izateko, bi herrien arteko eskaera bidali da Aldundira.

• **Gipuzkoako Auzo-udalek dituzten eskumenak (Ereñotzu eta Itziarren kasuan):**

- Auzo-Udal Batzordea eta Auzo Alkatea
- Aurrekontu propioak udalerriko aurrekontuetan integratuta
- Ondasunen jabe izateko eta berriak erosteko ahalmena
- Obrak lizitzatzeko ahalmena
- Dirulaguntzetara aurkezteko aukera
- Langileak kontratatatzeko eskumena

• **Ezkioko Udalarekin hasitako bidea**

- Eratuta zegoen **Jarraipen Batzordea aktibatu da eta urriaren 8an egin da lehen bilera** (bertan bi ordezkari udal bakoitzetik eta idazkari-kontuhartzailea)
- **Bilerak 15 egunetik behin** egitea adostu da (hurrengoa hilaren 22an)
- Adostasuna **Itsason Auzo-Udala sortzea dela aukerarik hoberena**
- 2020ko urriaren 9an eta bi alkateek sinatuta, **idatzi bat bidali da Gipuzkoako Foru Aldundira**, Itsason Auzo-Udala sortzeko baldintzak ahalbidetu ditzan eskatuz

• **Hurrengo bileretan Auzo-Udala lortu bitarteko eperako funtzionamendua adostea da helburua:**

- Itsasori dagozkion erabakiak hartzeko prozedura eta elkarren arteko komunikazioa eta koordinazioa zehaztu (aurrekontuak, langileak, diru-laguntzak...)

• **Gai hauen jarraipena egiteko Itsason asteazkenetako batzordeak eta larunbatak, hamabostetik behin, baliatuko dira, arratsaldeko 19:00etan.**

2.- Otsaileko batzarraz geroztik Udalak emandako pausoak

.Udaletxeko obra eta plaka fotovoltaikoak

Aurreikusitako epearen barruan doaz lanak, teilatua dagoeneko oso aurreratua dago eta abendu amaierarako espero da amaitzea. Urria bukatu aurretik plaka fotovoltaikoak jarriko dira plazara eta parke aldera jotzen duten teilatuetan. Honela udal eta ostatuko argindarrean eragin positiboa izango du eta kontuan hartu behar da, bestalde, instalazioa hein handi batean diruz lagundu dela.


.Itsasoko udal bide publikoak arautzeko ordenantza

- Erabilera berezietarako tasa: 2,50€ kamioiko/500 metroko
- Fidantza: 42,58€ kamioiko/500 metroko (25eko muga kendu da)
- Langak ezartzeko eskariren baten aurrean, udalak ordenantza arautu du:

- Herri bideak jarraipenik ez duen kasuetan bakarrik jarri ahal izango da
- Eskaera aurkeztu behar da Udalean honako baldintza hauek betez: Bidean partea duten guztien oniritzia, langaren deskribapena, langa aurrekaldean zabalunea, oinezkoentzat pasoa bermatu, langa jartzearen gastua norbere kontu, langatik aurrerako bide zatiaren mantenua (desbroze, elurra kentze,...) ez du Udalak egingo eta, azkenik, langarengatik larrialdi batean sortu litezkeen zailtasunak (suhiltzaile, anbulantzia,...) eskatzaileek bere gain hartu beharko dituzte.

.Diru laguntza berriak:

- **Leader 2020: Alegiako bulebarizazioa** 2019ko proiektuaren fase bat aurkeztu da, errepideari dagokiona. Aurrekontua: 37.221€. Aldundiak obra egiteko baimena eman du eta hilabete baino lehen abiatuko dira lanak: lehenik 5 cm denean kendu eta gainean berria kokatu, errepidearen maila igo gabe.



- **Garapen jasagarria: lur sailen erosketarako** Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntzei esker eta larrialdi klimatikoari aurre hartzeko xedearekin:
 - BELTZEZ** INGURATUTAKOA: Erositako terrenoa (10 hektarea)
 - LARANJAZ** INGURATUTAKOA: Erosiko den terrenoa (3,4 hektarea)**Natura Ondarearen Kontserbaziorako ekimenak**
 2020ean hasitakoaren jarraipena (Kizkitzako pagadian, San Lorentzoko terrenoetan landaketak, Alegian erreka ibarreko landaretza berreskuratzea)

3.- Udazkeneko auzolana urriaren 24ean

Auzolanean taldeka egiteko aurreikusi lanak hauexek dira:

- Altzigarragako iturria txukundu
- Itsusturri garbitu (hustu) eta desbrozatu. Anfibioak babesteko neurriak hartu.
- Alegiako eta Itsasoko lorategiak txukundu
- Alegiko bide berde bazterra eta zubi pareko erreka garbitu
- Su egurra prestatu
- Seinalitika kokatu S Lorentzo bidean

Adeitasunez,



Itsasoko Udal Batzordea

Itsason, 2020ko urriaren 24ean